

---

## Musketadun arratoiaren, *Ondatra zibethicus* (Linnaeus, 1766) behaketa Ezkurran (Nafarroan).

Observation of a muskrat, *Ondatra zibethicus*  
(Linnaeus, 1766), in Ezkurra (Navarre).

MIGEL MARI ELOSEGI\*



### RESUMEN

Primera cita de rata almizclera *Ondatra zibethicus* en la Península Ibérica. Un individuo fue observado y fotografiado en el canal de derivación de una minicentral hidroeléctrica los días 13 y 16 de abril de 2004 en la cuenca del río Urumea (norte de Navarra).

### ABSTRACT

First appointment for Iberian Peninsula of the muskrat *Ondatra zibethicus*. One exemplar was noted and photographed in one channel of derivation of the hydroelectric central the 13 and 16 of april 2004, in the Urumea basin (north of Navarre).



Musketadun arratoia jatorriz Ipar Amerikakoa den ugaztun urtarra da baina 1905 urtean handik atera eta Europan askatu zen. Honela, Bohemian, Pragatik hurbil askatu ondoren, ederki egokitu eta laister hedatu zen kontinentean zehar. Larru gozoko animalia izaki, zenbait lekutan haztegiak jarri ziren eta horrek animaliairen zabaltzeari lagundu zion (MOUTOU & BOUCHARDY, 1992). Geroztik, desagertarazteko saiakera ugari egin diren arren, hauek ez dute musketadun arratoiak kontrolatzerik lortu eta badirudi gure lurralderaino iritsi direla. Ingurumen Ministeritzak 2003an argitaratutako atlasean ez da ageri eta aurreko lanetan ere ez. PURROY & VALERAK (2003) eginiko ugaztunen atlasean, Bidasoako arroan agertzen denaren notizia zabaltzen dute baina aipamen hau oinarritzeko datu zehatz bakar bat ere jaso gabe.

---

\*Huarte, 1 • 31880 Leitza (Nafarroa).  
mmelosegi@yahoo.es

2004ko apirilaren 13an eta 16an, eguerdiko hirurak eta laurdenetan eta hirurak eta bos-tean hurrenez hurren, arratoi galanta ikusi zen Ezkurran dagoen Ugazko kanalean. Arratoia lehen txandan 40 minutuz eta bigarrean 50 minutuz ikusi zen prismatikoen bidez, eta zenbait momentutan, oso hurbiletik.

Urazalean mugitzen ziren uhinen bidez ohartuta, buru erdia eta bizkar gaina agerian zituela igeri zihoan arratoi bat ikusi zen kanalean. Urduritu zenean arratoia urperatu egin zen eta 10-25 metro aurrerago atera. Behin eta berriz errepikatuko zuen gero gauza bera. Tarteka ordea, belarrak edo bere burua gordetzeko adinako txoko zikinetan batipat, urazalera atera eta paretaren kontra geldi-geldirik jartzen zen. Prismatikoen bidez hainbat xehetasun ikus zitezkeen. Luzeraka zapaldutako arratoi-buztana zuen, alegia, ebakidura ez borobilekoa, eta beraz, zalantzarik gabe musketadun arratoia zen, *Ondatra zibethicus*. Atzeko hanka beltzak zituen, palmatuak, azkazal argiekin. Koipuen gisako ilea zuen, luze xamarra. Burua eta gorputza batuta 30 cm inguru zituen, eta buztana gehituta beste 15-20 cm gehiago. Kilo bateko pisua izan zezakeen.

Itxuraz, koipuaren antza zuen baina desberdintasunik ez zuen falta, izan ere, arratoi-mutur borobil xamarra zuen, eta ez akuriena edo koipuen bezain laukia. Bestalde, kolore argixeagoa zuen muturraren inguruan gorputzean baino, bigote ilunak, eta begi beltzak. Aurrez-aurre bagiratuta hortzik ez zuen ageri. Belarriak ez zituen oso nabariak. Gorputzaren kanpokaldea ile luzez jantzia zuen eta koloreari dagokionez arrea zen.

Atzeko hankak bereziak zituen, palmatuak, azkazal argiz hornituta. Urpera murgiltzeko, batzutan salto txikia ematen zuen plaztakoa emanez, eta osorik ez bazen ere, buztana

1. Irudia.- *Ondatra zibethicus*, eitea.

Figure 1.- *Ondatra zibethicus*, form.



ikusten zitzaion. Urpeko saio horietakoren bat benetan luzea izan zen, arnasa hartu eta minutu osoa urpean pasatzera iritsi baitzen. Urpean arina zen oso, eta atzeko hankak muturluzeen gisara astintzen zituen, txandaka, ez biak batera, eta buztana aldeetara mugitzen zuen, sugeen irristatzeko moduaren gisan. Aurreko hankak berriz, gorputzaren ondora bilduta eramaten zituen urpean.

Beti kanalaren pareko aldean ibili zen, alegia, behatzailea zebilen kontrako aldean, eta esan bezala, kanal gaineko belarrek babes pixka bat ematen ziotenean, bertan gelditzen zen. Edozein soinurekin izutu egiten zen, eta bitan argazki-kamararen soinurekin ezustekoa hartu eta plaztako bat emanez urperatu zen. Baldintza txar xamarretan argazki batzuk bota ahal izan zitzaizkion, 15-eko abiaduran 300mm objektiboarekin, baina dokumentu gisara erabilgarriak izan daitezke (Ikus, 1 Irudia).

Ugazko kanala Ezkurran dago, Urumea ibaiko goiko arroan. Ibai honek Ollingo erreka, eta Bederango erreka izenak hartzen ditu goikaldean. Ugazko kanalak, Bederango errekatik hartzen du ura, Ezkurra eta Leitzako mugatik hain zuzen ere. Altuera: 600 m itsas-mailatik. 30T 0593409 UTM 4773746.

Inguruan baso mistoak dira nagusi, haritzak eta pagoak batipat, eta baita bertakoak ez diren haritz amerikar, radiata pinu eta douglas izei batzuk ere. Inguru oso hezea eta epela da.

## BIBLIOGRAFIA

- BLANCO, J.C. 1998. *Mamíferos de España II*. Ed. Planeta. Barcelona.
- Ministerio de Medio Ambiente. 2003. *Atlas de los mamíferos terrestres de España*. Madrid.
- MOUTOU, F. & C. BOUCHARDY. 1992. *Los mamíferos en su medio*. Ed. Plural. Barcelona.
- PURROY, F.J. & J.M. VARELA. 2003. *Guía de los mamíferos de España. Península, Baleares y Canarias*. Lynx edicions. Barcelona.

